



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak eta Euskal Itsas Museoak “Mare Clausum: Norena da itsasoa?” erakusketa aurkeztu dute gaur

- Erakusketak “Norena da itsasoa?” galderaren atzean dauden gai konplexuei buruz hausnartzea du helburu.
- Gaur arratsaldean erakusketaren aurkezpena ospatuko da, lehen bisita gidatu batekin, Xabier Alberdi zuzendari zientifikoaren eskutik

2024.07.05. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak eta Euskal Itsas Museoak “Mare Clausum: Norena da itsasoa?” erakusketa aurkeztu dute. Erakusketa honen helburua hausnarketa eragitea da: batetik, “norena da itsasoa?” galderaren atzean dauden eta gaur egunean ere pil-pilean darraiten gai konplexuei buruzkoa eta, bestetik, Europak zazpi mendetan zehar munduko ozeano guztietan barrena buruturiko hedapen eta menderakuntzan Euskal Herriak izandako erantzukizun erabakigarriaren ingurukoa.

Gaur goizean Euskal Itsas Museoan egin den prentsaurrekoan, Goizane Álvarez Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Diputatuak, Xabier Alberdi Euskal Itsas Museoko Zuzendari Zientifikoarekin batera, erakusketa honi esker Gipuzkoak “gure ondare aberatsa babesteko eta sustatzeko” duen konpromisoa berresten dugula azaldu du. Pieza multzo garrantzitsu baten bidez, itsas guduetan erabilitako armak eta ikurrak eta itsasoz harainditi iritsitako mapa eta objektu exotikoen bidez, “euskaldunek munduko itsas historian izan duen eragina” erakusten dugu. Gainera, kontzientziak ikutu nahi ditugu, izan ere “Mare Clausum” esamoldeak nazioarteko eskubidean dituen eraginak azaltzen baitira; batez ere gaur egungo munduan, immigrazioa kontrolatzeko helburuarekin herrialde gehienek beren itsasoa ixten duten honetan. “Erakusketa honek gizateriari eta bizitza hobe bat bilatzeko eskubideari buruzko gogoeta bultzatzea nahi du”.

Euskal Itsas Museoko Zuzendari Zientifikoa den Xabier Alberdik erakusketa honen helburu nagusienetako bat gaur egunera arte, gizateriaren historia baldintzatu duten zibilizazioen eta inperio handien sorreran eta bilakaeran itsasoak izandako eragina funtsezkoa dela aldarrikatu nahi da. Gainera, “iraganeko eta gaur egungo giza-prozesuak aztertze eta ulertze saiatzeko behar-beharrezkoak diren ezagutza, hausnarketa eta gogoeta kritikoa eragin nahi ditu. Jatorriaren, historiaren eta filosofiaren ikuspegitik, baita moralarenetik ere,



prozesu horiek konplexutasun handikoak diren arren, kontakizun bakun eta manikeoak erabiliaz ohi azaltzen ditugu maiz” azpimarratu du Xabier Alberdik.

Mare Clausum vs. Mare Liberum

Mare Clausum hitza *Mare Liberum*en aurkako latinezko esamolde bat da, eta itsasoa, lurra bezala, subiranotasunaren objektu izan daitekeela aldarrikatzen du. Historiaren hasieratik hainbat zibilizazio borrokatu izan dira itsasbideen eta itsas baliabideen ustiapenaren gaineko nagusigoa eskuratzeko lehian. Lehia horrek bizi-bizirik jarraitzen du gaur egungo geopolitika- eta ingurumen-arazoetan ere.

Erakusketa hainbat arlo tematikotan banatuta dago. Batetik, beheko solairuan, itsas bideen eta baliabideen kontrolari buruzko eztabaida historikoak, eta nabigazioari eta itsas baliabideen ustiapenari buruzko desberdintasun legal eta moralak aztertzen dira. Bestetik, lehenengo solairuan, Europak zazpi mendetan zehar munduko ozeano guztietan barrena buruturiko hedapen eta menderakuntzan Euskal Herriak izandako erantzukizun erabakigarriaren ingurukoa.

Erakusketaren edukia osatzeko erabili diren balio historiko eta artistiko handia duten pieza sail aipagarri batez gozatu ahalko dute bisitariak. Aukera ederra da, beraz, Antzinaroaz geroztik itsasoaren jabetzaz zibilizazio ezberdinek burutu zituzten norgehiagoken eta Euskal Herriaren arteko harremanen adierazgarriak diren objektuak ezagutzeko, horien artean Gipuzkoan aurkitutako erromatar garaiko pieza esanguratsuak. Hainbat artelan eder ere goraiatzekoak dira, besteak beste, Manuel de Agote getariarraren, euskal esploratzaile eta itsasgizon ilustratu handienetakoa izan zenaren margolanak, hainbat txinatarren irudiak biltzen dituztenak, edo erlijio-urregintzako pieza zoragarri bat, guztiak XVIII. mendekoak. Orokorrean donostiarrei eta, zehazki, itsas historia unibertsala ezagutzen edo adituak direnei oso erakargarria gertatuko zaizkien hainbat pieza ere aipatzekoak dira: holandarren guda-ontziteria Abrojosko Guduan (Pernambuco, Brasil, 1632) garaitu ondoren Antonio de Oquendo almiranteak Arantzazuko Santutegiari eman eta bertan mendetan zehar gaur arte gordeak egon diren zinopariak.

Programazio itsastarra

Uda honetan “Mare Nostrum. Norena da itsasoa?” eskatu behar da Museoaren irekiera ordutegian. Horrez gain, Euskal Itsas Museoak erakusketari lotutako jarduera-programa



**EUSKAL
ITSAS
MUSEOA** **MUSEO
MARÍTIMO
VASCO**



GIPUZKOA
Kultura

zabala: topaketak, bisita gidatuak eta helduentzat eta familientzako tailerrak, batik bat, aurkeztuko ditu irailetik aurrera.

Gaur arratsaldean, uztailaren 5ean, 18:30ean, erakusketaren inaugurazioa egingo da publiko zabalarentzat. Lehenengo bisita Xabier Alberdi Zuzendari Zientifikoaren eskutik izango da, doan, eta luncha ere izango da bertarutzen direnentzat.

Euskal Itsas Museoko jardueretan izena emateari buruzko informazio guztia web orriaren bidez edo komunikazioa@itsasmuseoa.eus bitartez eman ahal izango da.

“Mare Clausum: Norena da itsasoa?” 2024ko uztailaren 5etik 2025 azaroaren 2ra

*Asteartetik-larunbatera: 10:00-14:00 / 16:00-19:00. Igande eta jaiegunak: 11:00-14:00 /
16:00-19:00*

Astlehena itxita



**EUSKAL
ITSAS
MUSEOA** **MUSEO
MARÍTIMO
VASCO**



GIPUZKOA
Kultura

El Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Museo Marítimo Vasco presentan la exposición “Mare Clausum: ¿De quién es el mar?”

- La muestra pretende generar la reflexión sobre las cuestiones que giran en torno a la pregunta “¿de quién es el mar?”
- Esta tarde se celebrará la inauguración de la exposición con una primera visita guiada gratuita de la mano del Director científico Xabier Alberdi

05.07.2024. El Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Museo Marítimo Vasco han inaugurado hoy su nueva exposición temporal "Mare Clausum" que pretende generar la reflexión sobre las cuestiones que giran en torno a la pregunta “¿de quién es el mar?”. Se trata de una muestra que abarca cuestiones que a día de hoy siguen estando latentes, como la decisiva responsabilidad que tuvo el País Vasco en siete siglos de expansión y dominación europea a lo largo y ancho de los océanos del planeta.

En una rueda de prensa, que ha tenido lugar esta mañana en el Museo Marítimo Vasco, la Diputada de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral Goizane Álvarez, acompañado por el Director Científico del Museo Marítimo Vasco, Xabier Alberdi, ha explicado que, gracias a esta exposición, reafirmamos el compromiso que Gipuzkoa tiene “con la preservación y promoción de nuestro rico patrimonio marítimo”. A través de una colección de piezas históricas, desde armas y pendones de batallas navales hasta mapas y objetos exóticos, mostramos “cómo las y los vascos han dejado una huella en la historia marítima mundial”. Además, pretendemos mover conciencias porque se descubren las implicaciones que tiene dentro del derecho internacional la expresión "Mare Clausum", en un mundo actual, donde muchos países cierran sus aguas para controlar la inmigración.” Esta exposición es una invitación a la reflexión sobre la humanidad y el derecho a buscar una vida mejor”.

El Director Científico del Museo Marítimo Vasco Xabier Alberdi destaca que entre uno de los objetivos de la exposición está el dar una llamada de atención al trascendental papel que ha ejercido el mar en el origen y devenir de las grandes civilizaciones e imperios que han condicionado la historia de la humanidad hasta nuestros días. Además de esto, y según sus palabras, “*Mare Clausum* pretende promover el conocimiento, la reflexión y el pensamiento

LAIDA CANSECO ETXABE. Komunikazio arduraduna / Responsable de Comunicación.

komunikazioa@itsasmuseoa.eus | Kaiko Pasealekua, 24 – 20003 Donostia-San Sebastián. 943 43 00 51.



EUSKAL
ITSAS
MUSEOA MUSEO
MARÍTIMO
VASCO



GIPUZKOA
Kultura

crítico, necesarios a la hora de analizar y tratar de entender los procesos humanos pasados y actuales. Unos procesos, caracterizados por su enorme complejidad causal, histórica, filosófica e, incluso, moral, pero que, frecuentemente, explicamos mediante relatos simplistas e, incluso, maniqueos”.

Mare Clausum vs. Mare Liberum

El término *Mare Clausum* es una expresión latina opuesta a *mare liberum* que proclama que el mar, como la tierra, puede ser objeto de apropiación soberana. La exposición relata cómo desde los albores de la historia diversas civilizaciones y potencias se disputaban la hegemonía sobre las rutas de navegación y la explotación de los recursos marítimos.

De este modo, la muestra se divide en varias áreas temáticas. En la planta baja se exploran debates históricos sobre el control de rutas y recursos marítimos y se analizan diferencias legales y morales sobre la navegación y explotación de recursos del mar. En la primera planta, se explora el papel histórico del País Vasco como facilitador de comercio internacional y explotación de recursos marítimos, independientemente de soberanías externas.

El discurso de la exposición se complementa mediante un destacado elenco de piezas de gran valor histórico y artístico que los y las visitantes tendrán ocasión de disfrutar. En este sentido, esta muestra constituye una inmejorable oportunidad para conocer objetos vinculados con la relación entre el País Vasco y las luchas por el dominio del mar protagonizadas desde la Antigüedad por distintas civilizaciones, caso de significativas piezas arqueológicas de época romana halladas en Gipuzkoa. Destacan, también, obras de arte de gran relevancia, caso de las pinturas de personajes chinos elaboradas por el getariarra Manuel de Agote, uno de los máximos exploradores y navegantes ilustrados del País Vasco, o de una magnífica pieza de orfebrería religiosa, todas, datadas en el siglo XVIII. Al público donostiarra, en general, y a los especialistas o conocedores de la historia marítima universal, en particular, les atraerá sobremanera los exvotos que el almirante Antonio de Oquendo, que tras alcanzar la victoria sobre la escuadra holandesa en la Batalla de los Abrojos (Pernambuco, Brasil, 1632), depositó en el Santuario de Arantzazu, donde han permanecido depositados durante siglos hasta nuestros días.

LAIDA CANSECO ETXABE. Komunikazio arduraduna / Responsable de Comunicación.

komunikazioa@itsasmuseoa.eus | Kaiko Pasealekua, 24 – 20003 Donostia-San Sebastián. 943 43 00 51.



**EUSKAL
ITSAS
MUSEOA** **MUSEO
MARÍTIMO
VASCO**



GIPUZKOA
Kultura

Una programación marítima

Este verano se ofrecerán visitas guiadas a la exposición “Mare Nostrum. ¿De quién es el mar?” bajo demanda en horario de apertura del Museo. Además de esto, la muestra viene acompañada de un amplio programa de actividades ideado por el Museo Marítimo Vasco que ofrecerá encuentros, visitas guiadas y talleres para adultos y familias a partir del mes de septiembre.

Esta tarde, 5 de julio a las 18:30h, se celebrará la inauguración de la exposición para el gran público con una primera visita de la mano del director científico Xabier Alberdi de manera gratuita y un lunch para las personas asistentes.

Toda la información sobre la inscripción a las actividades del Museo se podrán realizar a través de la página web o a través de komunikazioa@itsasmuseoa.eus.

“Mare Clausum: ¿De quién es el mar?” Del 5 de julio del 2024 al 2 de noviembre del 2025

De martes a sábado: 10:00-14:00 / 16:00-19:00. Domingos y festivos: 11:00-14:00 / 16:00-19:00

Lunes cerrado.